

KATALINTXO

eta

EUZKADI

Katalintxo, baserri-neska polita,
etxean zazpi neba-arreba ziran eta,
Kastilla'ko uri andi batera
mirabe joan zan,
etxeko-andra aberats baten etxera.

Gure Katalintxo bizkorra zan,
eta etxeko lanak
laster ikasi ebazan:
Jauregiko gelak txukundu,
ontziak garbitu,
maia lagundu,
jatekoak prestatu...
Etxeko-andrearen esanak egin,
zeatz eta fin-fin.

Etxeko-andra arroa gure Katalintxorekin
txoratuta bizi zan,

Katalintxo lakorik ez egoan,
ango inguru guztian.

Au neska langillea!, bizkorra!,
argia eta zurra!!!

Nik ezer esan baiño leenago,
Katalintxo or dago,
aizea baiño ariñago,
esana egiteko.

* * *

Katalintxok, gaur, 21 urte bete ditu:
gorputza jako anditu, ederragotu,
adimena argita ind rtn___
eta bere eskubideetzaz jabetu-konturatu...
Eta ikasi dau ikasi,

aste ta jai-egunetan lan egitea
dala giegi...
eta irabazia gitxiegi...
eta lana astunegi...
Eta etxeko-andrea bezela,
bera ere emakumea dala...
eta tratu obea merezi dauela...

Etxeko-andrearentzat orain,
gure Katalin, ez da «Katalintxo»,
«Katalin-arro» baiño,
«Katalin lotsabako», eta olako...
Orain da, Katalin «mustur-zikin»,
«fardel-gaitzo», «kaskarin», «pinpirin».

* * *

Gu, euskaldunok, ez ete gara kanpotarrentzako,
Katalintxoren antzeko?
Leen bizi giñan zapalduta, baztertuta,
gure nortasuna galduta,
besteen morroi eginda,
eta orduan bai, euskaldunak giñan,
jatorrak, langilleak, zintzoak eta esanekoak...
Orain, oster, arrotu egin ei gara...
eta gure buruaren jabe izatera,
eldu nai dogu...
Olako arrokeririk ikusi dozu?